

EKONOMIA SUSPERTZEKO “BONU TEKNOLOGIKOA”

XEDEA: Berrikuntza sustatzea Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainetan, 4.0. Fabrikazio Aurreratuko eta Industriako eredua txertatu dezaten, eta beren posizionamendu teknologikoa hobetu dezaten, «bonu teknologikoak» emanez.

ONURADUNAK:

Laguntzen onuradun izango dira Gipuzkoan zerga egoitza edo establezimendu iraunkorra daukaten enpresa txiki eta ertainak.

PROIEKTUEN BALDINTZAK:

Bonuak erabil daitezke, alde batetik, enpresaren ekoizpen prozesuan aplikatu daitekeen edozein teknologia aztertzeko, probatzeko eta kontrastatzeko edo ezartzeko, eta, bestetik, enpresaren barruko eta kanpoko elkarreragingarritasun prozesuak sustatzeko, "4.0 Fabrika zabaldua, digitala eta konektatua" kontzeptua lortzen errazte aldera.

Elkarreragingarritasun prozesuetarako, Gaia-Net Exchange izango da bonu teknologikoaren aplikazio zerbitzuak emango dituen entitatea.

Bonu teknologikoen xede diren gainontzeko zerbitzuak honako entitateetan eskatu ahal izango dira:

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean dauden zentroak, kategoria hauei dagozkienak: Foku anitzeko Zentro teknologikoak edo Unibertsitateetako Ikerketa egiturak.
- Berrikuntza eta Teknologia Transferentziako Sarean (TK-gune) sartuta dauden Lanbide Heziketarako Zentroak.
- Oinarri Teknologikoko Enpresa Berriak 4.0 teknologietako batean adituak. Kasu honetan, Eskualde Garapenerako Agentzia batengatik berretsia egon beharko du.

DIRU LAGUNTZEN PORTZENTAJEAK ETA GEHIENEO ZENBATEKOAK:

Dirulaguntzaren zenbatekoa kostu hautagarrien % 70ekoa izango da enpresa txikia bada eta % 60 enpresa ertaina bada, 8.000 euro gainditu gabe.

Bonoa Eskualde Garapenerako Agentzia batekin adostutako hobekuntza gomendio baten ondorioa denean eta aplikazioa agentziaren ardurapean badago, portzentajea %10 handituko da.

Deialdiak zehaztu ahal izango ditu lehentasuna duten teknologiak eta jarduera eremuak, eta kasu horiei %10 aplikatuko zaie diru laguntza gehigarri gisa.

Gastronomiaren arloko Balio Kateko enpresen proiektuei %5eko laguntza gehigarria emango zaie teknologia berria erabiltzen badute.

Gehienez, bi proiektu subentzionatuko dira enpresa bakoitzeko, teknologia desberdinak erabiltzen badira.

ESKERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA:

Enpresa bakoitzak proiektu bakar bat aurkez dezake deialdi bakoitzeko. Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkeztu eta hurrengo egunetik hasi eta **2019ko urriaren 10ean amaituko da**.

Deialdiari buruzko informazioa web orri honetan eskura daiteke: www.gipuzkoa.eus/subvenciones. Eskaera orria, deialdian itsatsi tako ereduari jarraituz, eta hari erantsi tako dokumentazioa, ahal dela, bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzen atarian: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak>. Deialdiaren informazioa web orri horretan dago eskuragarri.